

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 632/2023 Erabakia, urriaren 17koa. Behin betiko onespena ematea Okondoko udalerrirako egindako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari lotuta dagoen hiri lurzorua mugaketari

Irailaren 4ko 554/2023 Foru Aginduaren bidez, behin behinekoz onetsi zen Ondasun Higiezinaren Zergari loturiko Okondoko udalerriko hiri lurzorua mugaketa, azken urteetan arau subsidiarioetan egindako aldaketa puntualak jasotzeko egina.

Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bategineko 11. artikuluko 4. apartatua arabera, Arabako Foru Aldundiak entzundia eman behar zien zegozkien udalei, gehienez ere 15 eguneko epean, egoki zeritzotena jakinaraz zezaten.

2023ko urriaren 3an, Okondoko Udalak alegazio idazki bat aurkeztu zuen, zeinean zuzenketa bat proposatu baitzuen. Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuak baietsi egin du zuzenketa hori.

Horregatik, bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren foru diputatu arduradunak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa.- Onespena ematea, honekin batera doazen planoen arabera, Ondasun Higiezinaren Zergari loturiko Okondoko udalerriko hiri lurzorua mugaketari, zeina azken urteetan arau subsidiarioetan egindako hainbat aldaketa puntual jasotzeko egin baita.

Bigarrena.- Hori gorabehera, kontuan eduki behar da Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bategineko 3. artikuluko 2.b) apartatua ezarritakoa, hiri izaerako eraikinek okupatzen dituzten eta herriguneetatik kanpo dauden lurzoruen tratamendurako.

Hirugarrena.- Erabaki hau ALHAOn eta lurralde historikoko egunkari salduenetan argitaratuko da. Gainera, jendaurrean jarriko da 15 egunez, interesdunek egoki iritzitako erreklamazioak jar ditzaten. Agiria Okondoko Udalaren bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baitute Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bateginak, 11. artikuluko 5. apartatua, eta hura garatzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 1080/1992 Foru Dekretuak, 7., 8. eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 17a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
M^a JOSÉ PEREA URTEAGA